

# Folklore ikerketaren etorkizuna: erronkak eta beharrak

(The future of research on folklore: challenges and needs)

Quijera, Jose Antonio  
Eusko Ikaskuntza  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48  
20007 Donostia

---

*XX. mendean ze har folklorearen ikerkuntza Euskal Herrian mugimendu politikoari lotuta garatu da. Beste aspektuekin batera eta hau ere identitate ikurra izanda, berriazko nortasunaren ardatz moduan aztertzen zen. Bestalde, mendean emandako giza aldaketa nabariengatik, pre-miazkoa zen kultura herritararen objektu ez-materialen berehalako bilketak gauzatzea. Ikerketaren funtzionaltasuna agerian egoten zen, politikoa zein gizartekoa. Egoerak bultzatuta, kalitatea ez zen izaten helburua beti. Hau lortzen zen, ala ez, ikerlariaren trebetasuna eta formakuntzaren ondorioz. Aurreko guztiaren ondorioa da egungo egoera folklorearen ikerkuntzan, non ikerlariak hainbat behar eta hutsune aurkitzen duten. Orain suertatzen den etapan folklore adituek hausnarke ta komun batean aritu behar dute beraien lana funtsezko testuinguruan kokatzeko.*

*Giltza-Hitzak: Folklorearen ikerkuntza. Iraganeko prozesua. Egungo bete beharrak. Ekoizpenaren kalitatea. Ikerketaren mugak. Erakunde elkartzailea. Ikerketaren plan estrategikoa*

*A lo largo del siglo XX la investigación del folklore en Euskal Herria se ha desarrollado asociada al movimiento político. Junto con otros aspectos y siendo éste también seña de identidad, era analizado como eje de la personalidad específica. Por otra parte, con los cambios sociales evidentes que se han producido durante el siglo, resultaba indispensable proceder inmediatamente a la recolección de los objetos no materiales de cultura popular. La funcionalidad de la investigación era manifiesta, tanto en lo político como en lo social. Impulsada por la situación, la calidad no siempre solía ser el objetivo. Esta se lograba, o no, según la habilidad y formación del investigador. La situación actual de la investigación del folklore es fruto de todo lo anterior, y es una situación en la que los investigadores se encuentran con muchas necesidades y vacíos. En la etapa actual, los expertos en folklore tienen que realizar una reflexión en común para situar su trabajo en un contexto básico.*

*Palabras Clave: Investigación del folklore. Proceso del pasado. Obligaciones actuales. Calidad de la producción. Límites de la investigación. Institución aglutinadora. Plan estratégico de investigación.*

*Tout au long du XX<sup>e</sup> siècle, la recherche sur le folklore en Euskal Herria s'est développée en association avec le mouvement politique. En même temps que d'autres aspects et ce mouvement politique étant également une marque d'identité, il était analysé comme l'axe de la personnalité spécifique. D'autre part, avec les changements sociaux évidents qui se sont produits durant le siècle, il était indispensable de procéder immédiatement à la récolte des objets non matériels de la culture populaire. La fonctionnalité de la recherche était manifeste, aussi bien en ce qui concerne le politique que le social. Stimulée par la situation, la qualité n'était pas toujours l'objectif. Celle-ci s'obtenait ou ne s'obtenait pas, selon l'habileté et la formation du chercheur. La situation actuelle de la recherche sur le folklore est le fruit de tout ce qui précède, et c'est une situation dans laquelle les chercheurs retrouvent beaucoup de besoins et de vides. Dans l'étape actuelle, les experts en folklore doivent réaliser une réflexion commune pour situer leur travail dans un contexte basique.*

*Mots Clés: Recherche sur le folklore. Processus du passé. Obligations actuelles. Qualité de la production. Limites de la recherche. Institution aglutinatrice. Plan stratégique de recherche.*

XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikokoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques = Basque science and culture, and telematic networks (15. 2001. Donostia). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2002. - P 291-301. - ISBN: 84-8419-949-5.

## SARRERA

Idazlan honen helburua egungo Euskal Herriko folkloreaken egoera islatzea da. Bi alor aztertuko dira: alde batetik kulturaren osagarri gisa folkloreak betetzen duen funtzioa, eta folklorea helburutzat hartzen duen ikerketa bera, bestetik.

Hasteko, Euskal Herriko kultura herritarrak azken hamarkadetan jasan dituen giza eta bizimodu aldaketak adierazten dira.

Era berean, egungo gizakiak sustraiak behar ditu, ezin du hautsi milaka urtetako joera kulturalarekin, eta horren ondorioz jatorria bilatzen du. Hala ere, bilaketa horretan aurkitzen duena ez da aurretik galdu zuena zehazki, bere beharrak neurri txiki batean asetzeko ordezkia baizik, eta gainera, bane oreka lortzeko artifizialki sorturikoa. Honen inguruan jaio diren joera batzuk aztertzen dira, kultura herritarraren elementuak kontsumorako produktu bihurtuta, gizakiak kontsumitzen ditu, edota hirietan nahaste batean aritzen diren hainbat dantza taldeetan parte hartzen du, era guztietako mugak gaindituz.

Aldaketa nabari hauetako bat, emakumeak egungo gizarte garaikide eta industrializatuan bete behar duen papera da, herri eremutik hirietara jo ondoren, hausnarketarako gai aberatsa dena.

Bestalde, folklorea identitate ikurrak definitzeko tresna izan da, eta gurean horren erabilera oso nabaria izan da, herriak jasan duen egoera politikari aurre egiteko bide askatzaile moduan, azpimarratuz hain zuzen ere egoera politikoak izan duen eragina folkloreaken garapen eta ikerketan azken hamarkadetan.

Segidan, folkloreaken ikerkuntza Euskal Herrian helburu bihurtzen da. Atalean, zientzia honen gabeziak agerian uzten dira, hala nola haren norabide zehatzaren falta. XX. mendean folklore ikerketak eraman duen prozesua aztertzen da, jasan duen egoera azpimarratuz, bere ondorioa direlako egungo onurak eta penak.

Bukatzeko, egungo egoeratik etorkizunerantz folklore ikerketan aurrera jarraitzeko zientzia honek eta ikertzaileek dituzten beharrak biltzeaz gain, osatzeko bide batzuk aipatzen dira.

## FOLKLOREA ETA EUSKAL GIZARTEA. EGUNGO EGOERAREN AURREKARIAK

Sarritan, folkloristak atzera begiratzen du ohikoa izateagatik nekez idatzia izan den herrien osagarri hori ulertaraziko dion gakoan bila, ia guztion bizipen oinarria delako era batean edo bestean, eta azken batean aldagaitza eta eboluzionatzen ez duena dirudielako. Ingurune eta pertsonaren ikusmolde hermetikoan oinarritzen dela esan liteke, eta ikus-puntu historikoa, berehalako aldaketarena (askotan bereganatu gabekoa), folklore gaien beharrezko tresna desegokia suertatzen da. Errealitate bat al

da kultura tradizionala aldaketarekiko uzkurra dela, higidurari aurre egiten diola, aukerarik badu, bere gain irautarazteko? Zein izan da XX. mendean bukaeran euskal kultura tradizionalaren jokaera?

Aurreko galderen antzeko batzuei erantzun ahal izateko, zenbait kontzeptu definituz hasi beharko litzateke, eta ez ikertzaileari zehaztea komeni zaion ildotik (kulturaren irakurketa zientifiko batena azken buruan), baizik eta komunitateak berak bizi duen kulturarenetik (kulturaren ildotik).

Kultura tradizionalak, edo hobeki esanda, kultura tradizionalaren egoerak une batean eta aurki daitezkeen leku batean, hau da, giza komunitatea kokatzea baimentzen duen espazio-denbora koordinatupean, bere ezaugarrietako bat du komunitatearen bizitzaren osotasuna bustitzea. Gizartearen behar desberdinak besarkatzen dituen interpretazio eta ebazpideen bilaketa sistema bat da, zeinean bere gain, gainera, gizarte eta ekologia alderdien errealitateei aurre egiteko erantzunen tresna sortzaile bat finkatzen den.

Adigaien eremuan solasean, gizaki tradizionala bere sistema kulturalen murgilduta bizi da, hau da, bere folkloreaken argipean bizi da. Sistema horren ezaugarriak ugariak eta konplexuak dira. Sistema guztietan bezala, giza komunitate baten kultura tradizionala bere barnean elkarreaginean dauden osagaien arabera aurkezten da. Sistemak dituen objektu kultural guztien arteko erabateko harreman fluxuaren oinarrian kokatzen da, beraz. Hala ere, kultura tradizionala, herri baten folklorea bane, ez da sistema itxi bat, sarbidea dugun kasu orokor gehienetan behintzat, eta noski, ez da mende honetako euskal kultura tradizionalaren kasua. Aurreko garaian ere ez da izan.

Gainera, berrelkadura prozesuak konstanteak dira, hasteko osagai egonkortzaile eta autoerregulatzaile gisa, eta baita ere sistema kulturalaren eraginkortasuna indartzeko.

Aurrekoari lotuta, esan beharra dago bere kultura tradizionalen murgilduta bizi den gizakiak oreka egoera bat aurkitzen duela benetan, bere sistema kulturalak jarraitzen duen oreka bera. Baina egoera hau dinamikoa eta fluktuatzailea da hauen gain erantzun berriak finkatzeko garaian, abagune bakoitzak izaten dituen suspertzaileen arabera eta oripen-esperientziak sortzen dituen baliabide interpretatiboen eruduz. Hitz batez, sistema kultural tradizionalak, dena dela, badu baita ere bere helburukidetasuna, bukaerako berezko egoera baten aurkikuntza. Folklorea, tradizioan oinarritutako sistema kultural hori bezala eta bizi duen komunitatearen ia guztia bane hartzen duenaren gisa ulertuz, hain da organismo bizia, funtzionalitate soila puskatu, kontzeptzio existentzialista gainditu eta baita jokabide puruki razionaletik alde edo ihes ere egiten duen askotan. Gizakiaren hasieratik, giza jokabide kultural hauek suspertzaileei primarioki ez erantzutea ekartzen dute, baizik eta bera eta bere ingurunearekiko sorrera bukaezin batetara eramaten dute.

Folklorearen denborazkanpokotasunaz markatuta dago, hau da, ikusmolde historiko eta diakronikotik desbideratzen den izatea du nabarmenki. Hala ere, honek ez du berarekin ekartzen sistema aldaketarekiko uzkurra denik, antropologiaren praktikak etengabe adierazten duen bezala. Hala da, aldaketa egoerak ez dira ongi aztertuak izan. Euskal Herrian ere ez dira izan, baina egia da agerian dardela eta orain egokitzapen kulturalaren denboraldi handi baten aurrean bizi garela, beraz, biziraupen nahitaezko moldaerarena. Zermahi gisa, kultura hermitaren homeostasia kalitatezko arreta zehatzez aztertu behar da.

Giza eta kulturaren antropologiak aldaketen prozesua ikertzen du, gizakia eta komunitatearen moldaera egoera berrien aurrean. Berrikuntza, kultura tradizionala osatzen duten ia elementu guztietan islatzen da. Arkeologiak antzinako bizimoduaren aldaketa kulturekiko informazio baliotsua eskaintzen digu. Honela, teknologia egokitzapena azter genezake, finkapena bezalako alderdien aldaketa, komunitateko biztanleen arteko harreman sozialak, merkatu aldaketak, janzkera eta kulturaren kutsu sakonenak ere, hala nola erlijioaren kontzeptualizapena.

Aldaketa beti gurekin egon dela baieztatzen da, beti izan da herriaren ohiko bilakaera elementu bat; Euskal Herriko errealitatearen osagaia izan da, eta hau guztia horrelakoa da, hain zuzen ere, sistema antropikoez ez dutelako epe luzean egonkortasuna lortzen. Hain dinamikokak dira etengabe desorekak sortzen diren bizimoduaren arabera pertsonaren dinamismoarekin bat eginez.

Zein dira gaur egungo giltzak, hau da, azken hamarkadetan euskaldunon birmoldaketa kulturala bideratzen dutenak? Galdera honi erantzun zuzena emateko, onartu behar dugu ezen, joan den mendean emandako aldaketaren prozesua ez dela bukatu, eta bai bideratu dela azken hamarkadetak globaltasunerantz, hau da, historia garaikidean emandako azken urratsak mundu osoa pairatzen ari den funtsezko aldaketa sozio-ekonomikora zuzentzen dira. Esan dezagun prozesua etengabea dela, nahiz eta tarteko geltokietan norabidea ongi ez den ezagutzen. Hona hemen zenbait hausnarke-ta honen inguruan:

- *Suspertzaileen dinamismoa*: hasteko, onartu behar da gako hauek bat estimuluen izugarriko dinamismoa dela eta honen eraginak sortzen duen inertzia, informazioaz jabetzeko aukerarik ematen ez duen prozesuaren azelerazioa, sistema kulturalaren entropia handitzen duena zalantzarik gabe. Jasotzen den informazioa aztertzea ezinezkoa denean itzelezko abiaduran metatzen delako, feed-back prozesua etena geratzen da, sortutako erantzunekin berrelikatzea ezinezkoa gertatzen da, askotan, hauek ez baitira ematen ere. Sortzen badira, ia ez dago esperimendatzeko astirik. Onartu besterik ez dira egiten eta gainera, bitartean, oraindik informazio gehiago jasotzen da, prozesua oraindik gehiago kolapsatuz.

- *Aldaketaren aurreko ziurgabetasuna*: beste giltzarriak ziurgabetasunaren printzipioan datza. Aldaketaren amaieraren konstzientzia garbia ez denean ez bai egoera bat sortzen da, babesteko ez-analisi baten bidez konpontzen dena, hau da, helburu garbirik gabe aurrera jotzea. Berriro, aldaketa onartzen da, ez da inongo zentzuan kritikatzeko, jarraitzen zaio. Sistema kultural horretaz baliatzeko aukerarik ez dago, sarbidea murriztua agertzen baita, etena agertzen ez denean.
- *Aldaketarekiko erabakien arrotasuna*: aldaketaren inguruan dabiltzan erabakiak, funtsezko egoeren kasuan, euskal kulturaz kanpokoak dira. Aldaketarekiko erabakiak arrotzak dira. Kanpoan sortzen direla esan nahi dut, saritan hartutako erabakiek sortuko dituzten ekintzak ezagutzen ez dituzten eta kezkatzen ez dituzten erakunde eta organismoetatik datozenak. Edonola ere, egungo aldatze prozesuaren oinarria muga ekonomikoen artean lekutzen da. Luzarora, berrikuntzaren abantaila ekonomikoak beste edozein alderdiren gainetik ipiniko dira. Kritika, abantaila ekonomikoaren aurrean mutututa geratzen da.
- *Aldaketaren berdintasunerako joera*: beste aspektu nabaria da prozesu honen norakoa. Egungo datuekin, zalantzarik gabe kultura tradizionalen etorkizuna latza da leku guztietan. Zabaltzen ari den sistemak berdintasun kulturalerantz bideratzen du, eta gainera baliabide asko eta oso sendoak erabiltzen ari dira prozesu hau zuzendu eta eramateko, zeinaren aurrean kultura herritarrek arma gutxi erabil dezaketan autobabesarako.
- *Balore sistemen aldaketa*: gako ekonomikoetatik honela sorturiko aldaketa sakonen sistemak, balore sistema bezala ulertutakoak, gaur egun izaera internazionalakoak, sistema kulturalen azpisistemak, tradizionala izan ala ez, aldatzen du bere mamian. Sendi arteko harremanetan, igorpen kulturalaren fluxuen mendetako euskarri, bat-bateko aldaketak sortzen dira. Sendi arteko harremanetako usadio aldaketak fluxu hauek etenak gera daitezen eragiten du. Sendi artean transmititutako ipuina eta legenda bezalako objektu kulturalak ez dira jada kontutan hartzen, beste bide batzuk baitaude, gaur egun irudietan oinarritutakoak. Berea izan behar zuen ingurune kulturetik urrun dagoenari ekiten dio haurrak, eta gainera oraindik garrantzitsuagoa dena bada, aurrez ezarritako eta bereak ez diren baloreen menpe.

---

Aldaketa sozio-ekonomikoaren eragileak euskal kultura herritarrean

- Suspertzaileen dinamismoa: *sistemaren entropia handitu*
  - Inertzia
  - Informazioa prozesatzeko denbora falta
  - Informazio itzelaren metaketa azkarra
  - Feed-back prozesuaren etenaldia
  - Esperimendatzeko astiaren eza

- Aldaketaren aurreko ziurgabetasuna: *ezbai egoera sortu*
  - Prozesuaren amaieraren konstzientziaren eza
  - Ez-analisia aurre egiteko tresna bihurtu
  - Aldaketaren onarpena jabetu gabe
- Aldaketaren arrotasuna: *norbera bere kulturaren jabe ez izan*
  - Erabakiak foro arrotzetan hartzen dira
  - Erabakiek ez dituzte kultura berezkoak behatzen
  - Erabakiek norabide ekonomikoa dute
- Aldaketaren berdintasunerako joera: *kulturaren uniformismoa ekarri*
  - Berdintasun ekonomikoa
  - Berdintasun kulturala
  - Baliabide asko, oso sendoak eta berdinak erabiltzen dira
- Balore sistemaren aldaketa: *iraganeko balore kulturalen ukapena*
  - Lekuko baloreen sostengarritasunaren eza sistema berrian
  - Balore internazional komunak hedatzen dira
  - Mende baldeko aberastasun ekonomikoaren baloreak

Egoera honen aurrean euskal kulturak hiru jokabide izan ditzake:

- a) Aldaketa onartu eta sistema berriari jarraitu baldintza eta ondorio guztiekin, kritikatu gabe eta berezko sistema gaindituz.
- b) Aldaketari aurre egin frontalki. Tirabira horretan irabazle ateratzeko euskal kulturak oso tresna sendoak eta kolektiboki ongi hedatuak izan beharko lituzke. Egungo egoerak ez du horrelakorik adierazten, eta borrokan desagertzeko aukera nabaria legoke.
- c) Egoera berrira moldatzen jakin, aurreko herentzia ahaztu eta ukatu gabe; nolabait, erdiko bideari jarraitzea adostasun bilaketaren prozesuaren ondorioz. Horretarako, aldaketa eta bere ondorioak ongi ezagutu, aztertu eta kritikatu beharko lirateke. Adoste mahaira joateko identitate ikurrak sendotu beharko lirateke beharrezkoak diren indarrak erabiliz, hau da, kultura herritarren inbertsioak eginez hezkuntza, ikerketa eta transmisioaren bitartez behintzat. Gainera, egoera berriaren tresna egokiak aukeratu beharko lirateke bat egiteko nahian.

Aspektu bati arreta eskaini nahi diot. Goiko guztitik ondorioztatzen da erraz joan den mendeko aldaketa kulturalaren egoera kezagarria, batez ere bere bigarren erdialdean, bideratzeko aukeratako bat heziketa prozesu konpentsagarri eta berreskuragarri batean inbertitzea da. Parte hartzen duten eragile desberdinek berezko balore kulturalak birbaloratzen dituen eskolatze baten aldeko apustua, Euskal Herrian besteena den zerbait bezala bere folklorea ikusiko ez duen hezkuntza bat, oinarritzkoa baizik, herriko hezkuntza sistemarena, elementu konpentsatzaile bat izango da, neurriren batean

behintzat. Haurrak bere oinarri kulturala denborazkanpo bizi behar du. Bere barnean ipuina ontzen utzi behar da, mitoa, legenda, dantza eta musika tradizioaletan murgiltzen utzi. Izpirtuak diren folkloreak alderdiak dira. Beraz, errealitatearen ulergarritasunean gehiago sakonduko dituenak, minenak eta gainera epe luzera esanguratsuenak.

Irakaskuntzako profesional gisa, nire irakasle funtzioa bai gipuzkoar herri eta hirietan, eta baita baserri giroan ere egin dut. Jarduera honetan, baieztatu ahal izan dut ezen, nire ikasleek bere folkloreak erazteko pairatu dutela, edota izan behar zuenarena, bi inguruetan era berean ematen dela. Edonola ere, hirian aldaketa askoz bizkorragoa dela antzeman daiteke, azkarrago ematen da, baina azken buruan alderdi eta txoko guztietara iristen da. Antzina, aldaketen aitzindariak hiriak izaten ziren, bai Euskal Herrian eta bai kanpoan. Gaur egun, masen komunikabideek nonahi eta beti informazioa eskaintzen ari dira. Elxe guztietan batera sortzen dira beharrak, egoeraz at.

Abagunean, ziurgabetasuna, kritika ezaren onartzea, kultura erazketaren nahasketak, gizabanakoa mundu tradizionalera hurbilduko duen bideak bilatzen saiatzen diren giza erantzunak sortzen dira, askotan ia maila pribatuan; bere ezaguerara hurbiltzea behintzat, bere bizipen oro pentsaezina baita.

Irtenbideak aldaketa globalaren aurrean

- a) Onartu eta sistema berriari jarraitu.
- b) Aurre egin (eta ahuldu edo desagertu).
- c) Egoera berrira moldatzen jakin, herentzian oinarrituz:
  - Etengabe egoera berria aztertu eta kritikatu
  - Identitate ikurrak sendotu inbertsioak eginez:
    - Hezkuntzan
    - Folkloreak ikerketan
    - Transmisioan
  - Sistema berriaren tresna egokiak aukeratu eta bereak egin

## GALDUTAKO PARADISUEN PARADIGMA

Krisi egoera sakonek hausturak sortu ohi dituzte. Munduko beste hainbat lekuetan gertatzen ari denarekin bat, euskal kulturaren sistema tradizionala ere krisian aurkitzen da murgildurik. Honek antzinako egiturak baztertzeko, itxuraz beti ez hain zaharrak baina bai erroetan izaten direnak. Herri eta baserrietako emigratio prozesuak, azken buruan bizimodu tradizionaletik hirigunetarakoak, Euskal Herria osoan konstanteak izan dira XX. mendean. Biztanleek bere pausoak hiri handietako paradisu berrien bila zuzendu zituzte: soldatapeko eta ziurtasunezko lana, hiriko erosotasuna, jendeak eskuak lurrez zikintzen ez dituen lekua, aitzurraren trebetasuna berrikuntza teknologikoaren truke aldatzea, erlauntze-pisua, ordenagailua, norberaren autoak, ordainketa eskolak...; dena ongizatearen adierazgarri, estatus sozial baten eskuratzeko, eta baita boterearena ere. Jakina, honek salneurri bat

du, erauzketa moduan ordaintzen dena, masifikazio moduan eta, halaber, akulturazioan. Mikrokosmo pertsonalak sortzen dira, lehenagoko makrokosmo kolektiboen erorpena ekarriz.

Bizimodu mailan, aurretiko egoerak ez zituen jada beharrezko erantzunak eskaintzen. Noski, maila izpiritualean folkloreak ez zituen jadanik beharrezko erantzunak ematen. Ezta dantza eta musika tradizionalak ere, ezta ipuin, esamolde edo elezaharrek ez zuten egitura kultural eta sozial multinazional berriaren garapena baimentzen. Bere baztertzea aurreikusita zegoen. Honekin batera koreografia eta musika forma berriak, egitura mitiko berriak (gaur egungo gizarteak bere balore sistemearekin ere baditu, eta behar ditu, giza izaeraren zati baitira) azken mendeko gizaki berriaren oinarriko atal izatera iritsi dira.

Sartaldeko paradisua abantaila ekonomikoaren bizkarrean osatzen ari da, eta ez garapen kulturalarenean. Honeka, planetako lurralde handiak maila guztietako inboluzio prozesu batean, erabateko pobrezian, masen suntsiketa diren gaixotasun eta gosean, giza eta kultural erauzpen izugarrian, etab., murgilduta agertzen diren bitartean “paradisua berria” sortu da.

Baina luzarora mundu “zibilizatua” rentzako dena ez da zoriona paradisua berria. Bere barruan giza oinarriaren banaketa eragiten duen krisia gertatu da. Balore berriak bide ekonomikoetatik eskuratuak izan behar zuten, berari konsustantzialak zirelako. Langabeziak biztanleen sektore garrantzitsu baten sarbidea moztu du. Balore ezak edota balore berriak onartzera iritsi ezinak, erauzpen handiagora eramanean du, egoera bakartiak masifikazioaren bamean, etorkizun eta garapenaren ideia argi baten eza.

Honek guztiak iraganean pentsarazi eta heriminez gogoraraztera bultzatu du. Berehalako ondorioa da gaur egungo saiakera, pertsona askoren eskutik itxura zaharretara bueltatzearena. Hirian bizitz jarraitzen duenak antzinako moduetan sustraitzeko beharra sentitzen du, baseri ingurua grinaz ikusten du. Gainera dantza tradizionalak egiten dituen hiriko dantza talde baten partaide da, testuinguruz kanpo eta dena nahasiz, dena baliagarri bihurtu baita.


Baseri giroan bere etxebizitza mantendu zuek, ahal bezain pronto bertara egiten du ihes, non gizakiagotua diren harreman sozialak aurkitzen dituen, eta alde batera utzitako kontzeptuek balioa hartzen duten. Beste batzuk landa inguruneetan etxebizitzak erosten dituzte, nahiz eta inoiz ez diren bertako partaide izan, bertan errotzen saiatzen dira. Gizakia bere errealitatea ahal duen bezala onartzen saiatzen da hirian, lantegian, baina aurkitutako paradisua landatarrean pentsatzen du, eta bertara ihes egin ahal duenean. Kòktela leherkorra da. Mendiko herrixka batean, adibidez, oso sektore desberdinak elkartzen dira: adineko pertsonak beren ingurunea inoiz utzi ez dutenak; beste batzuk utzi ondoren eta hirian hainbat urtetan bizi eta gero

jubilatu eta bueltatu direnak; besteak langabeziaren egoeraz bultzatuak baserriko irtenbide ekonomiko batean pentsatuz itzuli direnak, nahiz eta hometarako egituratuak egon ez; asteburuetan joaten direnak ere aurki daitezke eta astean zehar hirian galdutakoa berreskuratzen saiatzen direnak; baserri inguruan bizi eta hirigunean lana egiten dutenak; etab. Edozein kasutan “identitate ikurren berreskuratzeaz” hitz egiten da, bai pertsonalak hala nola kolektiboak.


Egitura sozial hain kaotikoaren egoera honek bizimodu tradizionalaz geratzen dena sastakatzen du, interesak horren desberdinak eta aurkakoak izanik, logikoki aukera ahulenak erasotzen erraza goak dira, kasu honetan, era tradizionalak bere inguruan biltzen duen guztiarekin, bai teknologia mailan, materialean eta izpiritualean ere.

Ur-nahasiak. Merkatu berriak sortzen dira eta kultura tradizionalarekin salerosten da, sortzen dituen tresna edo objektuekin, folklorearekin. Baserri ingurunea gogorarazten duen ezaugarri bat darman edozein produktu baloratzen da: gazta, okela barazkiak, fruta, ogia, etab. Jendeak asteburuetan baserri ingurunera joatearen ordaintzen du. Egun batzuk pasa nahi ditu baserri batean, edota mendi eta baso arteko etxola edo etxe eder batean, baina noski hiriko erosotasunekin.

Kultura tradizionalaren krisiaren bilakaera XX. mendean



Folklorearen balioaren bilakaera



FOLKLORE KOREOGRAFIKOA BI MILURTEKOREN ARTEAN

Ikuspuntu soziologiko batetik, azken hamarkadetan Euskal Herrian sorturiko hiri eredu dantza taldeen mugimendua, aztertzeke dago. Aitzitik, milurtekoen arteko garapen soziala ulertzeko giltzarria izan daiteke.

Baseri ingurunearen eta bizimodu tradizionalaren baztertzeak, maila guztietan, jai edo festa tradizionalaren hondamenera eramanean du, bere osagai askoren galerara, etab. Dantza anitz eta konplexutasun handiko eritual ugari, berria den fase batetik pasa dira, bertako jai edo festa ikuspegitik desagertuz edota egitura murizketa garrantzitsuak jasanez.

Ondoren, kultura tradizionalarekiko forma batzuen balioa hartzearekin "berreskuratze prozesua" deiturikoaren lekuko gara. Toki askotan, aurrez aipaturiko biztanleen nahasketak dagoeneko galdua aurkitzen den festa edota jaia edo ahaztutako dantzaren bat martxan ipini nahi du. Berriro errealizatu nahi du pairatutako deskontestualizazioaz gain. Bazterketa garaian, gizartea aldatu egin da. Sistema kulturala dagoeneko ez da berdina, ezta balore sozialak ere. Honek guztiak, festa edota dantza egoera sozial berrira egokitzea dakar. Adibidez, festa ugari asteburuetan ospatzen dira, gaur egungo lan ekintzek ez baitute zaindari santuez ulertzen, tradiziozko dispositibo sinbolikoez, garai bateko sistema erlijiosoen kausa-ondorio harremanez, etab., ulertzen. Jendeak, asteburuetan hiritik herrira jotzen du. Unerako harreman giro sozial bat ezartzen da. Dantza ikuskizun bilakatzen da bere sorlekuan ere.

Hona hemen beste aspektu bat: Euskal Herriko kultura tradizionalan emakumezkoaren papera gaur egungo gizarte teknologikoan ematen denarekiko desberdina izan da. Dantzarekiko ere desberdina izan da. Berreskuratze prozesuan, jai giroaren eta dantzaren moldaketak aldaketetara eramaten gaitu, hauei esker emakumeak ere bere paperari irtenbide bat eskainiz, ez mundu tradizionalan, baizik eta hiriko modernoan. Egituren aldaketak baimentzen duen bizimodu bat eta bestearen arteko pareko egoerak ematen ez badira ere, paper hori eskatzen da, dantza aldarrikapen esparru batean bihurtuz.

Honekin batera, dantzaren inguruko tradizioak galdu ez diren lekuak, jai giroarekin aurrera jarraitu dutenak ere badira. Baina aldaketa sozialak, berez, hemen daude, eta biztanleen sektore guztietan dute eragina. Hemen ere egokitzapenak ez dira eskasian izan, eta kasu batean baino gehiagotan dantzaren inguruan tentsioak sortu dira aldaketa horiek gauzatzerakoan.

Mende bukaerako dantza eta festa tradizionalaren inguruko aukeren erakusgai honetan, zenbaitean dantza tradizional saga bat izatearen berririk ez zuten herrialdeetan, sortu egin dute, ondoko herrialdeen aurrean identitate ikurrez jantzita agertzeko. Genesisia aurrera eramateko modua, beti ere eta gutxienez berezia izan da.

Baserrigunetik lantegietarako emigrazioaren ondorioz gizendu diren industrializatutako herri eta hiriguneetan dantza tradizionalaren inguruko mugimendu sendo bat sortzen da. Arraroa da Euskal Herriko herrialderen bat bere dantza tradizional talderik ez duena aurkitzea. Hiri handiak talde hauekiko bat baino gehiagok hornitzen dira. Beraien orokortasunean konstante bat ematen da. Tradizioz bertakoa den dantzaren bat badago, garatu egin dute. Baina oinarrian edozein lurraldetako dantzak aurkezten dituzten taldeak dira, bere testuingurutzapenez arduratu barik. Herrian hain ugariak diren edozein talderen dantza jaialdi batek, ikusle gisa eserlekuan lasai jarrita, orokorrean sareraren ordainketaren ondoren (nahiz eta herri-

ko festetan udalaren esku egon ordainketa) bere alderdi guztietan heterogeneoa den dantza errepertorio bat ikustea baimentzen du, eta agian sortutako berriak bil ditzake, gustu hobekoak ala okerragoak, kasuen arabera. Ikusleak folklorea kontsumitzen du, taldeak bere gaitasunen arabera eskaini egiten du.

Hala ere, eta hau oso garrantzitsua da ene iritziz, talde hauen sorrera bultzatu duena ez da motibazio merkantilista bat izan, hiri itxurako dantza taldeen partaide izatera gazteak bultzatu dituen ez da dirua izan. Ez da izan eragingarri ekonomikoa bere sorrera bultzatu duena, ezta haietatik tira egiten duena ere. Motibazioak gizarte jiteko beste alderdiren batean aurkitu beharko genituzke. Alde batetik, biztanleriaren zati handi bat erauzketara eraman duen bizimodu aldaketa dago, eta garai bateko itxuretara hurbiltzeko beharra edo premia, giza itxura handiago, aberatsago eta zergatik ez exotikoagoaz berarekin inoiz harremana izan ez dutenen aurrean aurkezteko. Bestalde, motibazio politikoak ez dira falta izan. Gaur egungo euskaldunon historiaren aldi luze batean, dantza tradizionala izan da gure kulturaren espresio bide urrietako bat, eta baita aldarrikapen esparru garrantzitsua ere, noski, beste aukera batzuekin batera. Azken alderdi honetatik ondorio garrantzitsuak atera dira azken urteotan.

Espresio politikoa eta kulturala beste bideetatik bideratu direnean, dantza tradizionalak aldarrikapen erakargarritasuna galdu du. Dantza taldeak krisi egoera batean barneratu dira, zeinean batek baino gehiagok etsi egin duen. Beste batzuk jendearen beharrean aurkitu dira gizon eta emakumeen paperak orekatuz, aurrera jarraitu ahal izateko.

Talde ugari aipatzen du arazo gisa mutilen falta, zeintzuek gaur egun beste espresio bideetatik jotzen duten, eta emakumezkoen ugartasuna azpimarratzen duten. Emakumea akaso, edo bere sektore garrantzitsu bat behintzat, al da oraingoz Euskal Herrian antzinako egitura kulturalen gordetzailerik eta igorleak, emandako gizarte aldaketa sakonak eman arren? Ideia poetikoa da. Ziurtasunez, egiaren zati bat bada bertan. Baina hemen ere ez dira falta gizarte aldaketaren ondorioak. Heziketarekin harremana duten faktoreak daude jokoan, eta genero desberdintasunak oraindik ere aurrera darrai, gizarte teknokratiko mendebaltzailearen balore sisteman ondo finkatutako desberdintasuna, horren beharra baitu. Beste faktore batzuk gizaseme eta emakumezkoaren gizarteko rolen bideratzearekin kontsekuentek dira. Gaurko gizartearen egoeran, azalekoak dira askatasun lorpen maila anitz, ez dira benetakoak bere barnean.

Kontutan izan behar da ezen, emakumea oraingo "etxetik mundurako irteera" honetan, lehen neurri handi batean galaraziak zituen lekuak hartzen hasia dela. Emakumea bere pertsona eskubideetik kulturara hurbiltzen ari da; lehen arlo hau askotan ukatu izan zitzaion. Une honetako aukera kultural askoren jabe emakumezkoak dira, batez ere bene-

tan hautabidekoak direnean, ez dantza bakarrik. Aldarrikapen foro bihurtzen dira, eskubide eta beharren adierazpenarekin batera.

## FOLKLOREA ETA IDENTITATE IKURRAK

Adierazi dudan moduan, joan berri diren hamar kadetako hiriko dantza taldeen gorakadaren arazoietako bat espresio bide politiko eta kulturalaren plataforma gisa baliagarria izatea izan da. Identitate ikur moduan, maila guztietan erabilgarria eta ez kulturalan soilik, mugimendu abertzalearen proposamenaren zatia izan da bere joera desberdinetan eta mende osoan, ez frankismo garaian bakarrik. Ekintza politikoetan, gaur egun oraindik, folklorea erabilera nabarmentzen da, edota hobeki esanda, ordezkio pseudofolklorikoa, honen bidez biztanleen sektoreak atzemateko kolore eta handitasun izpi bat ematen baitzaie.

Euskal Herrian eta hemendik kanpo, gaur egungo gizartean folkloreak dituen betebeharren artean garrantzitsuena eusten duen komunitatearen idiosinkrasia adieraztearena da. Egun, ez dira kontutan hartzen betebeharrak sinboliko-erlijiosoak jai-giroa eta dantza galdu baitituzte.

Herialde baten kultura tradizionalak eta bere espresio bideak, arlo edo maila guztietan, egungo sartaldeko kulturaren homogeneousotasun egoeran, bere identitate ikur karismatikoa definitzen dute. Egoera teknologikoaren aurrean denak era berean aurkezten dira. Arautik desbideratzeko aukerak urriak dira. Baina folkloreak bere bizilagunen aurrean desberdintzearena eskaintzen du, "beste modu batean" adierazten direnak.

Antzina, gauzak bere ondorioetan oso antzekoak izan dira, nahiz eta motibazioetan ez hainbeste. Folklorea, kultura tradizionalaren espresio bide bat izan da, naturala edo arrunta esan dezagun. Berak bakarrik, batzuk eta besteak identifikatu ditu. Motibazioek izaera desberdinetako sustrai sozial eta erlijiosoak zituzten. Gaur egun, folklorea bidez desberdintzea bilatzen da, beste norabidekoa dena. Ez da nahikoa folkloreak identifika gaitzan, egin dezan behar dugu eta horretarako eginkizun hori bultzatu eta bideratzen dugu.

Alderdi administratibo soilak desberdintzen dituzten komunitateen artean folklorea bera izateko egoera ugari ematen dira Euskal Herrian. Errealitate hau ez da oraingoa. Azken bi hamarkadetan eginiko landa lanak, kulturalki homogeneousoa den ingurune baten barruan desberdintasunaren bilaketaren lekuko izan dadin ahalbideratu du, non nortasun desberdinaren bilaketaren benetako motibazioak, arazo politikoak, ekonomikoak, merkatal kompetentziaren ondoriozkoak, eta abar agertu diren.

Folkloreak, "Herri" baten nortasuna baieztatzen duen ingurunea izaten jarraitzen du, baita gaur egun ere, nahiz eta berea den inguruan bere espresioa gutxitua ikusten den, adopziozko ingurunean bideratua izaten da.

## FOLKLOREA ETA IKERKUNTZA

Okerrik egiteko beldur gabe, XX. mendean hasieran Euskal Herrian folklorea ikerkuntza, neuri handi batean behintzat, mugimendu politiko abertzaleari oso estuki lotuta sortu zela esan liteke. Mendean emandako bilakaera politikoak ikerketaren noranzkoa zuzendu zuen. Helburu nagusi bat herri honen nortasuna ongi definitzea, bere baitan sakontzea eta ingurukoekiko desberdintzea izaten zen, hau da, garbi adieraztea herri hau desberdina zela, alde batetik, eta horren ondorioz horrela jarraitzeko eskubide osoa zuela, bestetik.

Hasierako hamarkadetan, garapen industrialak berak, honek sorturiko giza egituren aldaketa sakonak barneko biztanlerian (barne mugimenduak hiri industrialetara, bizimodu hermitarren lagatze progresiboa) eta kanpotik etorritako langileen aurrean nortasun berriazkoa definitzeko asmoak bideratu zituen, folklorea datu etnografiko biltzaileen lana eta zeregina. Gero, isiltasuneko egoeran, biziraupena, hau da, nortasunaren desintegrazioa bilatzen zuen egoerari aurre egitea zen beste helburu bat, eta bitartean egoera horren aldaketan zain egoten zen. Halaber, aurreko guztiari uko egin gabe, zilegia zen herriaren identitatearen gehiago sakontzea, eta hau guztia inongo ikerketarik garatzeko egitura ezaren barruan.

Zalantzarik gabe, urte askotan folklorea ikerkuntza mugimendu politikoari lotuta garatu izateak ondorio nabariak ezarri ditu. Nolabait esateko, egungo egoera hamarkada askotako garapen estu horren fruitua da, zeinean ikerlariak behar zuen pentsamendu askearentzako egoeran ezin zuen lana bideratu. Ikerketaren norabidea bereziki zuzendu duena identitate ikurren bilaketa izan da. Euskal gizarteak berezko identitate ikurretan sakondu behar zuen: hizkuntza, kultura heritarra, arte garakide propioa, kudeaketarako tresna berriazkoak... Giza eta politiko egoera baterako egitura antolatuta zegoen. Folklorea inguruan aritzen ziren eragileek, ikerlari zein dantza taldeek edota elkarteek, ardatz politikoari heltzen zioten, eta honek denek ekimena zuzentzen zuen.

Baina, politiko eta gizarte aldaketak hain azkarak izan dira, nolabait moldaketarako denborarik ez den ia egon. Egoera honetan elementu asko desagertu dira. Hainbat dantza talde desagertu dira, eta ikerketaren produkzioa asko murriztu da. Halaber, horretarako diru laguntza publikoak gutxitu dira. Gaur egun ez da nahikoa lana egitea, kalitatea bilatzen da. Eronka hori aurre egiteko, iraganean sorturiko egiturak ez du erantzuten, ez du laguntzen.

Idea horren inguruan, folklorea definitzeko ez zirela hain beharrezkoa, lana egitea eta fruituak erakustea baizik, kantitatea kalitatearen aurrean. Joan den mendean hasierako hamarkadetan folklorea aztertzen zuten ikerlariak kultura heritararen eremu guztietara jotzen zuten. Denboran, definizioa birbiltzen joan da, eta azken hamarkadetan egindako idazlanek gaia zentratuago aurkezten dute. Azkenaldian, Euskal Herriko folkloristek kultura heritararen aspektu ez-materialak aztergai hartu dituzte bereziki, kultura izpirituala

deitzen dena foro desberdinetan. Baina, gauzak horrela bideratzen ari direla dirudien arren, kultura izpiritualaren esparru batzuei beste baina askoz garrantzia kuantitatibo handiagoa ematen zaio, dantza eta musikari hain zuzen ere. Bestalde, antzerki heritarrari, bertsolaritzari eta ahozko literatura heritarrari folkloristek ez diote denbora asko eskaintzen, esate baterako.


Modu horretan horrela, ikerlariak oztopo nagusi batzuk aurkitzen ditu. Alde batetik, azpiegitura egoikia eta lagungarria falta zaio. Neuri handian, autodidaktismoarekin jarraitzen da, horrek dakartzan hutsune eta ebaluaketa ezarekin. Euskal Herriko folklore ikerlariak bakardadean aritzen dira lanean oro har. Beraz, proposatu diren adostasunerako forek porrot egin dute, batzuk pertsonaltasunaren helburuarekin sortu zirelako, beste batzuk erakunde elkartzailleak izateko gauza izan ez direlako. Ideiak ez dira gehienetan trukutzen, edota zailtasun handiz erkatzen dira plazaratu baino lehen.

Bestetik, finkatze prozesua ez da amaitu, eta oraingoz ez da lortu folklorearen definizio zehatza eragile guztientzat. Lana ez dago adostuta eta gutxiago programatuta indarrak kuantitatiboki bideratzeko beharren eta hutsuneen arabera. Azkenez, administrazioak ez du arduraren hartzen folklorearen ikerketan, eta ez dago ikerketarik babes ekonomikorik gabe. Aitzitik, folklorearen ikerkuntzak herri honi asko eman lekiok.


Unibertsitate estamentua folkloreaz era jarrai eta sendo batean arduratu ez izateak, zereginak ikerzaile desberdinen eskutik jarraitzea darama, oso era autodidakta batean, lehen esan bezala. Ondorioak segituta pentsaera antropologikoaren ildo edo eskola desberdinei loturik agertzen dira; aspaldian gauditutako eskolen eraginetara atxikimenduz eginiko lan askoren anakronismoa, hau da, garatu eta gaurkotu gabeko lanak; egindako lanei segida emango zikeen hari gidari baten eta multzo koherente osaraz jantziko duenaren eza. Bestalde, banakotasuna ez da falta, taldea saihesten duen ikerlari bakartia. Honela, zailtasunez egiazta daitezke iritzi eta lan-hipotesiak.

Folklorearen ikerkuntza Euskal Herrian XX. mendean

Aurrekariak



Ikerketaren garapena



Europar eta amerikar unibertsitate mailan, gaur egungo folkloreakiko joera gaiaren ikuspuntu zabal bat garatetik agertzen da. Antropologia sozial eta kulturalaren adar gisa aintzakotzat hartuta, folkloreaken alderdi materialak zein izpiritualak lantzen dira. Honela, ikerkuntza ingurunea orokortasunez ikusten da, hau da, kultura tradizionala bere alderdi guztietatik ikertzen da, oso testuingurutzatua, eta ez hainbeste zati disjuntuetan, azken hamarkadetan Euskal Herriko joera arrunta izan den moduan. Esan dudaz bezala, alde batetik zuzendaritza argi baten ezak ekarri du hau guztia, non unibertsitate barrutiak zeresana baduen, beste edozein ikerketa edo ikaskuntza arloan bezainbat. Orokortasuna kultura tradizionalaren errealitatearen ondorioa da, ez berak bere burua zatitzearena. Gainera, gero eta arreta gehiago hartzen dira folkloreaken inguruko alderdi sozialak, sostengatzen duen gizartean duen balioa, pairatzen dituen aldaketak, harreman sozialen inguruan duen esanahia.

Hemendik aurrera, ikerketa ildo berri batzuk diseinatzen dira, orain arte euskal ikerzaileek kontutan hartu gabekoak. Arlo desberdinetako zientzia moduan, folkloreak espezialisten esku hartzea behar du ezagueraren zenbait alorretan, baina era berean kultura tradizionalaren multzo ikuspegia dutenak. Edozein modutan ere, oraindik bide luzea dago aurretik.

Egun, kultura tradizionalaz landa lana bukatzeko egonik ere, ikerzaileen eginkizuna, bildutako materialen analisisetara zuzentzen da, eta ondorioak eskuratzea. Hauekin euskal kulturaren fenomeno ulerkorrago bihurtzea bilatzen da eta fenomeno horretan murgilduta bizi izan den gizartearena.

Ikerketak askatasuna behar du. Folkloreaken ikerketaren esparrutik egungo gizartearen beharrei erantzuna eman dakiok, eta horretarako ikerlariak lehentasunezko aztergaiak helburutzat hartu behar lituzkete. Hona hemen hausnarketarako etorkizun hurbileko eronka batzuk, hurrengo lerro artean landuko direnak.

- Ikerketarako plan estrategiko komun bat finkatu.
- Ikerketaren beraren eta lorturiko ekoizpenaren kalitatea helburu bihurtu.
- Folkloreaken ikerketaren esparru eta mugak adostu.
- Erakunde elkartzaillea osatu eta lanean jarri.

Ikerketarako plan estrategikoa

Koordinaketa faltaren ondorioz, ikerketa oso barreiatua izan da orain arte. Gai batzuetan milaka lan garatu dira, eta hauetarako gehienak oso errepikakorrak suertatu dira: datu berdinak bilduz eta emanez, informetzaileak berak erabiliz hamaika alditan, aurrekoek azaldutako ondorio berdinak kaleratuz. Nolabait, bide antzu bihurtu dira halako ustiatzea jasan ondoren.



Bestalde, hainbat gaietan, berriz, lanak ez du jarraipenik izan, ez da gehiago sakondu, zalantzarik gabe agortu gabe izatetik oso uruti egonda oraingoz, bidea ez da jorratzen. Azken honen ondorioz, ikusita hainbat arazotarako berandu gabiltzala, galdutako trenan ez den berriro eskuragarria izango, eta ondasun kultural herritarrak ihes egiten digu ikerlarion huts egitearengatik.

Plan estrategiko komun bat behar da Euskal Herrian folklore ikerketa aurrera eramateko, zeinean lehenetarik finkatu behar diren, eta gainera ikerlari eta lan taldeen indarrak bideratzeko gauza izan behar duena. Lehen bezala, hemen ere eztabaida eta adostasunaren bila aritzea dira tresnak. Horretaz gain, ikusita azkenaldian baliabide ekonomiko publiko gutxiago bideratzen dela folklore ikerketarako, beharrezkoa da administrazio ekonomiko zuzentzea banaketa lehenetsutara bideratuz.

Horrek ez du ukatzen ikerlariaren lanaren autonomia. Ikertzaileak askatasuna behar du bere funtzioa bete ahal izateko. Baina, premiak daudenean aurre egin behar zaie.

#### Ikerketaren ekoizpenaren kalitatea

Denbora luzean, lana egitea eta jakinaraztea onartu da helburua gisa, hau da, ikertu egin behar zen, datuak bildu behar ziren, eta horren ondorioa kaleratu behar zen, lana bera eta lorturiko produktua ongi ala gaizki egindakoa bazen ere. Nolabait, denak bazuen balioa kalitatearen gainetik. Ondoko irizpideak euskal ikerlarien norabidea zuzendu du urte askotan: lana egin eta jakinarazi behar da ondo ala gaizki egon arren; gero, ondorengokoek hobetuko dute.

Euskal etnografiako ikerlari ospetsu batek duela berrogeita hamar urte emandako konsigna honek bere funtzioa bete du, hain zuzen ere ikerkuntza putzu sakonean aurkitzen zenean eta egoez aurka egiten zionean. Egun, lana hobetzeko tresnak agerian daude, denon eskuragarri, eta kalitatea da hain zuzen ere bilatu behar den helburu bat ekoizpenean.

Eta aurrekoari lotuta, hainbat aldiz entzun da, ikertzaileen ahoetatik, ondoko esaldi eta irizpidea: ea norik frogatzen duen gauzak ezin izan direnik horrelakoak izan. Denak balio duen egoera ezarritu batean horrek ere badu bere zergatia. Hori esker, azken urteotan oinarri zientifiko gutxi ekoizpen interpretatiboak ez dira eskasak izan, esate baterako. Baina, ikertzailearen helburu bat ezin da izan goiko esaldi horren adierak berak baimentzen duen edozein bide onartzea, daitekeen ala ez, hau da, logika zientifikoaren menpe dagoen ala ez, oinarri sendoa duen ala ez, eta abar. Hain zuzen ere, ikerlariaren lana gauzak horrela izan edo izaten zirela frogatzea da, edo gutxienez, hipotesiaren arloan, berea probabilitate nagusiez janzteaz gain, onartzea besteen hipotesiak bereak bezain aberatsak izan daitezkeela tresna zientifiko egokiak erabili direnean. Beraz, ez dirudi edozerk balio duenik.

Kalitatea alde batetik, ikerlariaren ezagutza eta aditu izatearen eskuetatik iristen da. Lehenago aipaturiko ideia batekin topo egiten dugu berriro. Izandako egoera ez-arruntan, ikerlariak beren burua osatu behar izan dute, zuzenketa akademiko sendorik gabe autodidaktismoaren alorrean aritzean. Gainera, kritikarik gabe zailtasunez hobetzen da, eta bakarreko lanaren eremutik alderatu behar da ideiak trukatzeko, hau delako lorturikoaren zilegitasuna baieztatze bide aberatsa. Orduan, norberaren ezagutzan sakontzea eta gaitasunean aritzea tresna egokiak dira, plazan ideiak trukatu eta kritikapean jartzearekin batera, kalitatearen bila aritzeko tresna egokiak. Hitz gutxitan, prestakuntza eta lan kolektiboa dira aurrera jotzeko tresnak.

#### Folklore ikerketaren esparru eta mugak

Goian aipatu den moduan, folklorearen ikerketak bide desberdinak hartu ditu Euskal Herrian XX mendean zehar, eta honen zergatia ondoko puntuetan aurki daiteke:

a) Zientziaren jatorrizko ambiguitasuna: folklorearen lehenengo urrats sistematikoak eman zirenean Ingalaterran, kultura heritararekiko aspektu guztiak aztergai bihurtu ziren. Denboran zehar lana zentratu da lurralde gehienetan zuzenketa eta elkarketa zientifikoaren bidez, Euskal Herrian beti faltan egon dena.

b) Bilakaera ez-normala: sortu zenetik, Europan eta beste aldeetan zientzia gaztea garapen normala jasaten ari zenean, geurean zientzia honek blokeo politiko eta kulturala pairatu zuen. Elkarketarako fororik gabe, ikerlarien bakardadeko lana norberaren grinez zuzendu da; folklore zientziaren nortasuna eta mugak, ongi jakin edo definitu gabeak direlako, emandako ikerketa urratsak desbideratu ohi dira.

c) Zuzenketa akademikoaren falta: unibertsitateak bete behar zuen zuzenketa eta koordinaketa papera ez du bete, iraganean ez zegoelako bertako unibertsitatek Euskal Herrian (horra hor aitzakia), eta egun folkloreak ez dirudielako nahiko interesgarria kolektiboki aztergai bihurtzeko unibertsitateko adituen artean. Hala ere, jarrera pertsonal interesatuak badaude gaur egun, abiapuntu egokia izan daitezkeenak.

Sorturiko egoera honetan, hamaika fronte zabaldu dira lanerako. Adibide gisa, 1994. urtetik hona Eusko Ikaskuntza Folklore Sailak jasotako esperientziaren arabera, ikerlariak proposaturiko ekintzak eta azterlanak oso desberdinak izan direla esan behar da, eta gainera zailtasunez aurkitzen da ildo komun bat denen artean, baina era berean nabariagoa da oraingoz behatzea folklorearen berariazkoak diren gai batzuk ez direla lantzen, ez dutela arreta eskuratzeko, eta ez dira folklorearen eremu barruan kokatzen faktikoki. Hau dela eta, beste zientzien ikuspuntutik aztertutik izaten dira gure esparrutik bazterrean bideratzen diren heinean. Esate baterako, dantza, jaia, musika eta abarreko buruzko lanak

egunerokoak dira; beste batzuk ez dira arruntak, mitologia eta erlijioen fenomenologia bezalakoak; eta, berriz, beste batzuk ez dira praktikotasunean landu, bertso laritza, ahozko literatura, antzerki herri-tarra, eta abar (hots! folkloreaken ikuspuntutik).

Folkloreaken ikerketaren mugak definitze arduraren daude oraindik gurean, eta definizio horrek adostasunaren fruitua izan behar du, beti ere orain arte egindako lanaren aurrean egonda, eta inguruko lurraldeetan gertatzen ari denaren azterketaren bitartez erreferentzia sendoaren laguntzaz. Adostasuna gauzatzeko, ezinbestekoa da lan, koordinazio eta eztabaida komuna.

Horrekin batera, onartu behar da ezen, jatorriz folklorea kultura tradizionalak aztertze zientzia izan dela, eta azkenaldian bereziki kultura horien aspektu ez-materialak. Baina kultura tradizionalak, antzinako adierarekin behintzat, galtze edota globaltasunean uniformismorantz doaz. Egoera honetan ikerketa honek izandakoaren baloreak eskaini ditzake alde batetik, eta sortzen ari diren egitura berriak aztertze tresna ezin hobe bihurtu liteke, non aurrera egiteko bide egokia bila lezakeen.

#### *Erakunde elkartzaien beharra*

Ikerlariak jasotako materialak biltzeko azpiegitura ez da sortu Euskal Herrian oraindik. Ikerlari bakartiek zein lan taldeek jasotako materiala ezkutu gordetzen da. Egoera hau harrigarri bihurtzen da esperientzia batzuk aurrera eramateko diru publikoa erabili denean, eta aitzitik, inbertsio horren fruitua esku pribatu gordeta gelditzen denean. Alde batetik, hauxe lehen aipaturiko ondorio logikoa besterik ez da: prestakuntza eskasa eta honek sorturiko beldurra eta mesfidantzak, bakardadean lanean aritzea, ideiak elkar trukatzeko zailtasunak, zuzenketa zientifiko komun baten falta historikoa, eta gaizki bideraturiko protagonismoa.

Denen lana eta indarrak koordinatzen duen zentro baten beharra hainbat adituen ahotan egoten da azkenaldian, batez ere ikerlari gazteen esanetan, azken batean hauek aukera hobeak izan dituztelako haien prestakuntzarako, eta ohituagoak egoten baitira elkarlanean aritzen unibertsitatearen eraginez. Zentro honek ondoko betebeharrak izango lituzke, besteen artean:

- Foro komuna elkarketarako, zeinean ideiak eta ekimenak elkar bana litezkeen.
- Ikerlariak garatzen dituzten lan desberdinen koordinazioa gauzatea, bikoizketak gerta ez daitezkeen lan eta ekonomiko indarrak galduz, edota informatzaileen babesaz arduratuz nekea sortu gabe.
- Hainbat lan komun zuzentzea, lehentasunak erabaki ondoren.
- Administrazioarekin harremana gauzatu. Era berean, beste ikerketa zentroekin harremanak bideratu eta ekintzak koordinatu.

- Ikasketa eta kontsulta teknikorako azpiegitura eratzea: ikastaroak prestatu, liburutegi osatua sortu, ikus-entzumenerako materialak bildu eta erabiltzeko azpiegitura eskaini, etab. Hau da, ikerketarako zentro batek behar duena bere zeregina eratzeke.
- Ikerlarien lanak biltzeko egitura dinamikoa gauzatu, zeinean materialak egungo araudiaren arabera ikusgai aurki litezkeen.

---

#### Ikerketaren beharrak

- a) Ikerketarako plan estrategikoa
  - Adostasunean oinarritu
  - Betebeharrak finkatu
  - Lan taldeak osatu eta koordinatu
  - Ikerketa lanak bideratu beharren arabera
  - Kudeaketa ekonomikoaren oinarriak jarri
- b) Ikerketaren ekoizpenaren kalitatea
  - Ostapokak:*
    - Bakarreko lana-ideiak ez trukatea
    - Edozerk balio du
    - Auto didaktismoa
  - Irte nbide aK:*
    - Ikerlariaren prestakuntza
    - Ikerlariaren gaitasuna
    - Zuzenketa akademikoa
    - Talde lana-ideiak trukatea, adostea eta kritikatea
- c) Folklore ikerketaren esparru eta mugak definitu
  - Ostapokak:*
    - Folklore zientziaren jatorrizko anbiguitasuna
    - Garapen ez-normala Euskal Herrian
    - Zuzenketa akademikoaren falta
  - Etorkizuna:*
    - Ingurua behatu
    - Zuzenketa eta elkarketa zientifikoaren bidez lana zentratu
- d) Erakunde elkartzailerak
  - Oraingo egoera:*
    - Materiala eta baliabideak sakabanatuta
    - Bilketa berdina etengabe errepikatu
    - Baliabide ekonomikoaren dispersioa
    - Foro komunaren faltan: ideiak ez dira trukatzeko lana ez da adosten koordinaketa ez da gauzatzen
  - Irte nbide a:*
    - Entitate elkartzailerak: pertsonen foroa gune fisikoa
    - Funtzio batzuk: ikerlarien elkargunea mota guztietako materialen biltokia lanaren koordinazioa gauzatu baliabide ekonomikoak zentralizatu eta bideratu

---

#### IKERKETAREN FUNTZIOA

Zientziako edozein ikerketaren ekimeni beti bi bide irekitzen zaizkio. Alde batean, oso hedatuta da ikerketaren funtzio zehatzaren pentsaera, hau da, egiten den lanak funtzio edo behar zehatz bati erantzun behar dio.

Folklorean hau ere egunerokoa da, eta gurean ez bada gehiago gertatzen da, hain zuzen, ikerketarako egitura ez dagoelako ongi eratuta oraingoz, eta bezeroak ez dakielako oso ongi nora jo behar duen bermeaz. Hona hemen folklore ikerketaren erabileraren bi adibide esanguratsuak:

a) Hasieran aipatu da hezkuntzaren gabezia kultura heritarren inguruan. Hezkuntza erreformak atal desberdinetan folkloreak jorraketa kontzeptuala eta praktikoa eskuratu nahi du curriculumen osagai bihurtzeko, zehar lerrotan zein beste arlo formalagoetan. Hau errealitate bihurtzeko irakasleek lan tresnak eta zuzenketa bat behar dituzte. Folklore ikerketaren ekoizpena erabilgarria da lan horretarako material eta beharrezkoak diren baliabide didaktiko guztiak prestatzeko bereziki. Halaber, aitortu behar da esparru honetan zenbait lan egin direla, baina agian erabilera partziala eman zaie orain arte. Esan behar da, proiektu zabal eta saiaturik gauzatu dela honen inguruan Eliko Folklore Sailean, eta Hezkuntza administrazioari produktu bukatua eman zaionean, honek uko egin diola oso hezkuntz perspektiba ahula eta estuaz. Zalantzarik gabe, hainbat arazoetan administrazioak berak ez badu dagokion ardura hartzen ez dago aurrera egiterik.

b) Lehen esan den moduan, egun folklorea kontsumoko elementua da. Kultura heritarra saltzeko produktu bat bihurtu da, eta bere kontsumitzaileak baditu, batez ere eremu hiritarrean. Katalogoa zabala da: liburu berezkoak eta dibulгатiboak,

musika eta diskoak, etorri heritarreko jantziak, elikadura, inguru heritarreko hainbat jarduera, turismoa, eta beste hainbat. Ikerketak berak tresnak eskaintzen dizkie produktu horiek saltzen dituztenei, eta hauek etengabe erabiltzen dituzte jarduerak, produktuak eta publizitatea diseinatzeko.

Baina, esandakoa ahaztu gabe, aitortu behar da ikerlariak askatasuna behar duela ikerketan dibagatzeko, eta gainera sormenerako lekua utzi behar da. Orain jasotako material asko ez da lan zehatz baten helburua izango beti. Baina etorkizunean arituko den ikerlari baten ezinbesteko baliabide bihurtu liteke. Berez, egun garaturiko ikerlan askok ez dute haien muga edo gailurra lortu, lehen esan dudana bezala. Gogora dezagun zenbat esparru oso gutxi landuta edo zeharo jorratu gabe gelditzen diren oraingoz folklore ikerketan. Bide horietan egon daitezke etorkizun hurbileko ikerketa eremuak. Adibide bat, bukaerari era emateko: Euskal Herriko folklorea aztergai izaten da bere baitan, baina lurraldeak egun muga kulturala egiten duen inguruko eremu geografiko eta antropologikoekin sorturiko harreman kultural zaharrak eta kultura ez-materialaren fluxua ez da izan hain landua. Beraz, hurbileko egoerarekin hartu-emanak ez ditugu zehaztasunez ezagutzen, eta horrek dakarrena da egindako lana partziala izan dela neurri handian, edota geurea ez dugula hain ondo ezagutzen. Horrelako lanek, zalantzarik gabe txalogarriak direnek, bide berriak eta oso oparoak irekitzen dizkiote trebea, formatuta eta prest dagoen ikerlariari.